

SU TXIKIAN HOBETO

Herri formakuntzarako tresna berria aurkezten ari dira Euskal Herrian zehar

Sukalde txiki askok egin dezaketelako iraultza», su txikian hobeto lan egiten den uste osoan, Joxemi Zumalabe Fundazioak formakuntza esperientzia bat antolatu zuen 2015etik 2018ra bitartean zenbait herri mugimendurekin batera. Esperientzia horretatik ateratako gogoeta eta ikaspenak partekatzeko asmoz, horiek plazaratzeari ekin diote oraindik orain, ikastaro hura oinarri hartuta egindako lana euskarri bitan aurkeztuz: «Su txikian. Herri mugimenduak bor-borka» bideoa eta «Pil-Pilean herri mugimenduen formakuntza politikorako esperientzia bat Euskal Herrian. Ikastaroaren sistematizazioa (2015-2018)» liburua.

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Joxemi Zumalabe Fundazioaren asmoa, besteak beste, herri mugimenduen formazio beharra sozializatzea eta hori egiteko moduari erreparatzea da. Hiru urtean izandako formakuntza esperientzian oinarrituta, bideo bat eta liburu bat argitaratu dituzte, azken asteetan Euskal Herrian zehar ezagutarazten ari direnak.

Fundazioko kideek diotenez, esperientzien sistematizazioa erdigunean jarri zuten, besteak beste: «Jakintza eta ikaspenak sortzen dituzten subjektu gisa identifikatzen ditugulako ikastaroko partaideak, eta esperientzien sistematizazioa ardatz, bestelako ikaspen eta ikerketak eraman nahi izan di-

Su txikian biraren aurkezpenera hastear, Algortako Azebarri kultur elkartearen. Joxemi Zumalabe Fundazioa

tugu aurrera herri jakintzen filosofiari garrantzia emanaz».

HERRI FORMAKUNTZARAKO TRESNA

Apirilaren 15ean egin zuten lehenengo aurkezpenera Algortako Azebarri kultur elkartearen; bigarrena, berriz, 29an Iruñeko Katakarak gunean. Aurreikusita zeukaten lehenengo ema-

naldia martxoaren 21ean egitea, Baionako Zizpa gaztetxean, baina pandemiak eragindako egoera dela-eta atzeratu egin zuten, apirilaren 10ean Ainhize-Monjolosen (Nafarroa Beherea) egiteko asmoa zutena bezala, frantses Estatuak ezarritako neurriek galarazita. Edonola ere, emanaldi gehiago egiten jarraituko dute Euskal Herrian zehar. Hurrengoa, urrunera gabe, maiatzaren 13an Gasteizko Gaztetxean.

Aurkezpen bira honen bidez, askotariko lengoaia eta analisiak erabiliz, dokumentala eta liburua herri mugimenduen eskuetan formakuntza politikorako tresna praktikoak izan daitezen nahi dute. Bideoa «Pil-pilean» izeneko formakuntza politikoaren esperientzian oinarritua da, herri ja-



kintzetan oinarritutako esperientzien sistematizazioa ardatza duela. Formakuntza esperientzia horrek ikastaro formatua izan zuen eta bertan zenbait herri mugimendutako kideek parte hartu zuten. Bideoak bertako bizipen nahiz ikaspenak bildu ditu 30 minutuko metrajean.

Dokumentalean, ikastaroan parte hartu zuten 14 lagun agertzen dira beren esperientzia eta han ikasitakoak kontatzen, ikastaroak utzi dien arrastoa erakusten, metodologia eta bizipenetatik ikasteak duen garrantzia azaltzen. Honelako hitzak entzuten dira haien ahotik: «arnasa», «oxigenoa», «terapia militantea», «militantzia beste modu batean ulertzeko ikastaroa», «egiteko moduak aldatzeko prozesua»...

Izan ere, Joxemi Zumalabe Fundazioaren asmoa, besteak beste, herri mugimenduen formazio beharra sozializatzea ez ezik, hori egiteko moduari erreparatzea ere bada. Horregatik argitaratu dute liburua ere, fundazioaren webgunean eskuragarri dagoena. Hartara, bideoa eta liburua tresna bera- ren osagarri dira, betiere «herri- ritik sortutako jakintza herriari itzultzeko» xedez.

BOR-BOR(K) ETA «PIL-PILEAN»

«Pil-pilean» ikastaroa 2015. urtean sortu zen, jakintza kolektiboki sortzea arretagune nagusia zuela, Euskal Herriko herri mugimenduek elkar eza- gutzeko, esperientziak trukatzeko eta saretzeko espazioa izan zedin. «Formakuntza politiko integrala sustatu nahi genuen, eta harekin kultura politiko askatzaileagoak pentsatu, gure kultura politikoak izateko eta ekiteko dituen moduak ber- ritzeko ahaleginean sakon-



Su-txikian: Herri mugimenduak bor-borka" trailerra

du», diote fundazioko kideek. «Joxemi Zumalabe Fundazioak Euskal Herriko mugimenduetatik eta mugimenduen- tzako formazio politiko baterako espazio bat birstortze- ko ametsa zuen, etengabe ber- rituko litzatekeen formazio politikorako proiektu berri- tzaile, ireki eta kolektibo bat izatekoa». Amets hori gauza-

«Su txikian. Herri mugimenduak bor-borka» bideoaren fotograma.
GAUR8

tze aldera, 2013an hasi ziren bide horretan lehen urratsak egiten.

2014an, gogoeta kolektiboa oinarri zutela, herri mugimen- duetako hainbat kiderekin prozesu bat abiatu zuten, par- te-hartzea bultzatuko zuena. Euskal Herriko nahiz nazioar- teko herri mugimenduetan garatzen ari ziren formakun-

tza esperientziak ezagutu, for- makuntza politikoaren analisi bat osatu eta aurrera begirako erronka batzuk definitu nahi zituzten.

«Pil-pilean» ikastaroa Bor- Bor(K) Herri Jakintzen Labora- tegitik sortu zen hurrengo ur- tean: «Formakuntza politiko integrala sustatu nahi genuen, historikoa, teoriko-ideologi- koa, metodologikoa, gorpu- tzezkua, antolaketakoa... herri sektoreek pairatzen dituzten zapalkuntza guztiak eta aurre- ra daramatzaten borroka eta erresistentzia estrategia denak aitortuz». Formakuntza espe- rimentu harekin kultura poli- tiko askatzaileagoak pentsatu nahi zituzten: «Gure kultura politikoak izateko eta ekiteko dituen moduak ber- ritzeko ahaleginean sakondu».

Baina BorBor(K) Herri Jakin- tzen Laborategi hartatik ez zen ikastaro soil bat sortu. Experi- mentaziorako tarte handiagoa

JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA

Joxemi Zumalabe Fundazioak ez du aurkezpen berezirik behar. Euskal kulturari eta herri ekimenari ekarpen eskerga egin zien lagun baten izena duen fundazio hori 1996an sortu zen, Euskal Herrian eraldaketa sozialean lanean ari diren herri mugimenduen kultura indartzeko asmoz. Haren helburua herri mugimenduen ekarpena jaso eta aurrera ateratzea da. «Gure Fundazioaren bokazioa herri mugimenduekin, herri mugimenduetatik eta herri mugimenduentzako lan egitea da», diote

fundazioko kideek. «Sinergia eta ahalduntze prozesuak bilatuz, Euskal Herrietako herri mugimenduek dituzten gogoeta, dinamizazio eta formazio prozesuetan laguntzea, hain zuzen ere. Euskal Herriko herri ekimen, talde eta mugimenduek egiten duten ekarpen sozial eta politikoa ikusarazi, sendotu eta merezi duen errekonozimendua ematea, azken finean».


Testuinguru horretan egiten ari dira «Su txikian bira mundiala», pandemia gorabehera.

ematen zuen eta bertan landu-
tako tresna gehiago sortu di-
tuzte, mahai baten inguruko
terminologia erabiliz azaltzen
dituztenak: Biltokia, ikastaro-
tan erabilitako material, dina-
mika eta bestelako baliabideak
jendarteratzeko «erreminta
kutxa» birtuala; Gatzozpindu,
herri mugimenduek dinami-
zazio eta errazte ikastaroa es-
katuta, haientzat baliagarria
izango zen esperientziari hel-
du zioten; Bazkalondoa, bide-
an ikasitako guztia jendartera-
tu eta partekatzeke, ikasketak
idatziz ipini eta sistematizazio
lanak egiten ari dira, hala nola,
hain zuzen, aurkeztzen ari di-
ren dokumentala, besteak
beste; Murtxikatuz: formazio
politikoaren ezaugarriak bir-
pentsatuz, hemengo eta mun-
duko proposamenak ezagutu
nahi dituen taldea, eztabaida
piztu, zabaldu eta jardunal-
diak antolatu dituen.

IKASTAROA

2015etik 2018ra bitartean, be-
raz, “Pil-Pilean” ikastaroaren
urtebeteko hiru edizio egin zi-
tuzten. Bertan parte hartu zu-
tenak, jakina, Euskal Herriko
herri mugimenduetako kideak
izan ziren, edizio bakoitzean
orotara 40 bat lagunek: herri
mugimenduetako 30 inguruk,
Batzorde Politiko Pedagogikoa
(BPP) izeneko koordinazio tal-
deko beste 10 bat lagunek eta
sukaldari taldeko lauzpabost
boluntariok.

Ikastaro hori bi «gai potolo-
ren» inguruan prestatu zuten:
alde batetik, antolakuntza,
funtzionamendua eta alian-
tzak herri mugimenduetan,
eta beste alde batetik, zapal-
kuntzen egungo mekanismo-
ak eta alternatiba askatzaileak.
Hori guztia herri jakintzen fi-
losofiari jarraituz egin zuten;
alegia, «jakintza hein batean



denon artean sortzen dugula»
ulertzen duen filosofiaren ara-
bera, «denok eraikitzen dugula
ezagutza eta guztiok ikasten
dugula hortik», diote zumala-
bekideek.

Bost asteburutan gauzatu
zen ikastaroa, bost lekutan:
Gernikako Astran, Ziordiko
Amarauan, Arabako Garaio-
nen, Gasteizko Errekaleorren
eta Goñiko udalekuetan. Bizi-
kidetza oinarri, hiru egunean
zehar luzatzen zen ikastaroa,
eta jarduera guztiak egiteko

**Fundazioaren asmoa, besteak beste, herri
mugimenduen formazio beharra sozializatzea
ez ezik, hori egiteko moduari erreparatzea ere
bada. Horregatik argitaratu dute liburua ere**

**«Pil-pilean» ikastaroa 2015ean sortu zen,
Euskal Herriko herri mugimenduek «elkar
ezagutzeko, esperientziak trukatzeko eta
saretzeko espazio» izan zedin**

«Pil-pilean»
esperientzian
oinarritutako liburua;
atzean, aurkezpen
biraren kartela.
Eskuineko irudian, «Bor-
bor(K)», gerora «Pil-
pilean» ikastaroa izango
zenaren kartela.
Joxemi Zumalabe Fundazioa -
GAUR8



eta herri jakintzen filosofia
praktikan jartzeko, BPP koor-
dinazio taldeko kideak lau az-
pitaldetan banatuta zeuden,
ikastaroan parte hartu zutene-
kin batera. BPP taldea hainbat
herri mugimendutako mili-
tanteek osatua zen, eta talde
horrek antolatzen zuen lehen
asteburua. Bertan ikastaroa-
ren filosofia, edukiak eta fun-
tzionamendua azaltzen zen,
eta lantaldeak eratzen ziren.
Hortik aurrera, lantalde bako-
itzaren ardura zen hurrengo
asteburuko antolaketa.

Taldeak eskuarki lurraldeta-
sunaren arabera batzen ziren,
eta ikastaroko «ardurak» txan-
daka antolatzen zituzten. Lau
ardura ziren, eta talde bako-
itza lau arduretako batetik pa-
satu zen asteburu bakoitzean.

Arduretako bat «gogoeta»
zen, ikastaroan landuko ziren
edukiak dinamizatzeke, pres-
tatzeke eta ariketak egiteko ar-

dura. Beste bat, «goxotasuna
eta azpiegitura», janaria, etxea
prestatzea eta zaintza lanak
oro har. «Patxada eta patxan-
ga» zen beste bat, gaubeilak
eta momentu informaletako
dinamikak prestatzeko ardura,
elkarren ezagutza sustatzeko.
Laugarren ardura «sistemat-
izazioa» zen, «esperientzien
sistematizazioa ardatz baten
bueltan ikertzeko ardura».

Algortako eta Iruñeko aur-
kezpen emanaldien ostean,
beraz, Gasteizko Gaztetxekoa-
ren txanda izango da, dato-
rren astean bertan, eta hilaren
27an Donostiakoarena. Azken
emanaldia Ziordiko Amarau-
nan egingo dute ekainaren
19an. Emanaldietara joateko
beharrezkoa da izena ematea.
Covid-19a dela eta, neurrien
arabera azken momentuko al-
daketak izan litezke. Hala iza-
nez gero, ohiko bideetatik
emango dute haien berri.